Los usos académicos del ordenador prevalecen entre los estudiantes (85,4%), los jóvenes (28,3%) y un revelador 82,4% entre los que tienen de 6 a 14 años, lo que permite reincidir en el diagnóstico del enorme valor socializador de la escuela cara a la normalización y rutinización de la relación de los individuos con los soportes materiales de la Sociedad de la Información. El potencial socializador del espacio educativo se hace presente entre los que indican

Ordenagailu pertsonala erabiltzeko arrazoiak aztertuta (27. grafikoa), ikus dezakegu arrazoi profesionalak direla nagusi helduen (%66,3), langileen (%74,1) eta erdi edo goi mailako ikasketak dituztenen (%71,3) artean. Bai ikasleek (%3,9), bai gazteek (%40,3) aukeratu dute arrazoi hori ordenagailua zenbaitetan erabiltzeko. Biztanle helduak, lan-munduan daudenak eta goi mailako ikasketak dituztenak dira ordenagailu pertsonala erabiltzeko arrazoi nagusitzat hori eman dutenak.

Ordenagailu pertsonalen erabilera akademikoak nagusi dira ikasleen (%85,4), gazteen (%28,3) eta, bereziki, 6 eta 14 urtekoen artean (%82,4); beraz, azpimarratzekoa da berriz ere eskolaren balio gizarteratzailea pertsonen eta informazioaren gizarteko euskarri materialen arteko normalizaziorako eta horiek ohiko bihurtzeko. Hezkuntza-espazioaren ahalmen sozializatzailea nagusi da ordenagailu pertsonala azken hiru hilabeteetan erabilera akademikoetarako erabili

Población de 6 y más años que ha utilizado el ordenador por razones de uso según sexo, edad, relación con la actividad y nivel de instrucción. C. A. de Euskadi. 2009. (%)

27

Ordenagailua erabili duten 6 urte eta gehiagoko biztanleak erabiltzeko arrazoien arabera banatuta,sexua, adina, jarduerarekiko lotura eta heziketa maila kontuan hartuta . Euskal Autonomia Erkidegoa. 2009. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F).

haber utilizado el ordenador para usos académicos en los tres últimos meses, espacio en el que además las diferencias entre géneros se atemperan. Se confirma un dato conocido: que el espacio escolar y académico es un territorio en el que las diferencias de género se reducen más que en otros lugares de la vida social.

Si nos centramos en la evolución de los usos lúdicos del ordenador, su presencia se incrementa tanto entre los jóvenes como entre los adultos y mayores. Del mismo modo, crece de manera lenta pero sostenida entre los ocupados, los inactivos y parados. El uso del ordenador normaliza su presencia entre las diversas generaciones y en todos los sectores de la sociedad, que hacen de él no sólo un instrumento para la vida circunspecta sino también para cuestiones menos serias.

dutela esan dutenen artean eta, espazio horretan, gainera, generoen arteko aldeak girotuta daude. Datu ezagun bat baieztatu da: eskolan eta espazio akademikoan, generoen arteko aldeak murritzagoak dira bizitza sozialeko beste leku batzuetan baino.

Ordenagailu pertsonalaren erabilera ludikoak ardatz gisa hartzen baditugu, ikusiko dugu presentzia areagotu egiten dela bai gazteen, bai helduen eta nagusien artean. Halaber, motel baina finko egin du gora langileen, lanean ez dihardutenen eta langabeen artean. Ordenagailuaren erabileraren presentzia normalizatu egin da zenbait belaunaldiren artean eta gizartearen sektore guztietan eta bizitza seriorako tresna gisa erabiltzeaz gain, gai hain serioak ez direnetarako ere erabiltzen dute.

Podemos concluir que se ha producido una cierta normalización de la presencia de la tecnología en la vida cotidiana de los individuos y las familias, cabe decir casi su rutinización. Habida cuenta de la evidencia de este fenómeno y de su aceleración durante los últimos años, no es muy aventurado presumir que, para quienes participen de estas formas de usar la tecnología, en particular las generaciones más jóvenes, quepa considerar que un a priori inexpresivo "no sé" refleje mejor que otras respuestas las razones del uso de estos aparatos. En efecto, es un rasgo muy estructurante de las sociedades de la información la normalización de la presencia de la alta tecnología en el paisaje, espacios y usos cotidianos, tanto que ni siquiera es necesario preguntarse por qué se usa.

Por otra parte, conocer más a fondo las razones para no usar ordenadores orientaría hacia la observación de una población de la que saber detalles sería enormemente relevante para conocer en profundidad la Sociedad de la Información. En efecto, por un lado, permitiría conocer aspectos significativos de la llamada brecha digital. Por otro lado, habilitaría a saber de actitudes de rechazo voluntario, es decir, de prácticas de renuncia al uso de la tecnología con grados diversos de reflexividad, que apuntarían hacia reacciones negativas a la expansión de la tecnología en la vida cotidiana.

2.2 Personal laboral con acceso a los equipamientos TIC en las empresas

Para analizar el uso del equipamiento tecnológico en las empresas vascas utilizamos el nivel de acceso del personal laboral a esos equipamientos (Gráfico 28). En el año 2009 el 62,5% del personal laboral de las empresas vascas dispone de ordenador, el 52,7% tiene acceso a Internet y el 52,8% dispone de correo electrónico. El personal laboral de las empresas vascas dispone de un mayor acceso al ordenador que a Internet y no hay apenas diferencia entre quienes tienen acceso a Internet y disponen de correo electrónico. El Territorio Histórico donde mayor porcentaje de personas empleadas utiliza estas tecnologías es Bizkaia, seguido de Gipuzkoa y Álava.

Sin embargo, en esta ocasión, los porcentajes de personas empleadas que utilizan estas tecnologías no muestran grandes diferencias cuando se tiene en cuenta el tamaño de la empresa (Gráfico 29). Esto puede deberse, entre otras razones, a que mientras en las empresas grandes sólo una parte de las personas empleadas, normalmente las de oficina y servicios administrativos, tiene acceso a los equipamientos tecnológicos estudiados, en las empresas pequeñas el trabajo no está tan diferenciado y es más habitual que las personas empleadas tengan acceso a la mayor parte del equipamiento de la empresa.

Beraz, esan genezake nolabaiteko normalizazioa izan duela teknologiak pertsonen eta familien ohiko bizitzan eta, are gehiago, ohiko bihurtu dela. Fenomeno hori eta azken urteetan izan duen azelerazioa kontuan hartuta, esan genezake teknologia erabiltzeko modu horiek baliatzen dituztenentzat, bereziki belaunaldi gazteenentzat, a priori adierazkortasunik gabekoa den "ez dakit" esapideak beste erantzun batzuek baino hobeto adierazten dituela aparailu horiek erabiltzeko arrazoiak. Are gehiago, informazioaren gizarteak egituratzen dituen ezaugarrietako bat da goi mailako teknologiaren presentzia ohiko paisaietan, espazioetan eta erabileretan eta, hain normalizatuta dago, zergatik erabiltzen den galdetzea ez da beharrezkoa.

Bestalde, ordenagailu pertsonalak ez erabiltzeko arrazoiak sakonago ezagutzeak bideratu egingo gintuzke biztanleria hori behatzera eta biztanleria horren xehetasunak jakitea funtsezkoa izango litzateke informazioaren gizartea sakon ezagutzeko. Batetik, haustura digital delako horren ezaugarri funtsezkoenak ezagutu ahal izango lirateke. Bestetik, norbere borondatez ordenagailuen erabilerari uko egiteko jarrerak zein diren ezagutu ahal izango lirateke horri esker, hau da, teknologia erabiltzeari nolabaiteko gogoetazaletasun mailarekin uko egiteko jokabideak; jokabide horiek eguneroko bizitzan teknologia zabaltzearen kontrako erreakzioak izango lirateke.

2.2 Enpresetan IKT ekipamendua erabil dezaketen lan-kontratudun langileak

Ekipamendu teknologikoaren erabilera euskal enpresetan aztertzeko, ekipamendu horietarako lan-kontratudun langileek daukaten sarbide-maila erabili dugu (28. grafikoa). 2009 urtean, euskal enpresetako lan-kontratudun langileen %62,5ek ordenagailu pertsonala daukate, %52,7k Interneterako sarbidea eta %52,8k posta elektronikoa. Euskal enpresetako lan-kontratudun langileek ordenagailu pertsonala erabiltzeko aukera handiagoa daukate Interneterako sarbidea baino eta ez dago ia alderik Interneterako sarbidea daukatenen eta posta elektronikoa daukatenen artean. Teknologia horiek erabiltzen dituzten lan-kontratudun langileen kopuru handiena daukan Lurralde Historikoa Bizkaia da, ondoren Gipuzkoa dago eta azken lekuan, berriz, Araba.

Alabaina, oraingoan, teknologia horiek erabiltzen dituzten lan-kontratudun langileen portzentajeak ez dauka alde handirik enpresaren tamainari dagokionez (29. grafikoa). Besteak beste, hauxe izan daiteke arrazoia: enpresa handietan langileetako batzuek, gehienetan bulegokoek eta administrazio-zerbitzuetakoek, daukate aztertutako ekipamendu teknologikoak erabiltzeko aukera, aldiz, enpresa txikietan lana ez dago hain desberdinduta eta ohikoagoa da langileek enpresako ekipamenduaren zati handiena erabiltzeko aukera izatea.

Personas empleadas con acceso a equipamientos TIC en los establecimientos de la C. A. de Euskadi según Territorio Histórico y tamaño del establecimiento en 2009. (%)

28

Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduetan IKT ekipamenduak erabiltzeko aukera daukaten lan-kontratudun langileak LurraldeHistorikoaren eta establezimenduaren tamainaren arabera banatuta 2009an. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Enpresak (IGI-E).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Empresas (ESI-E).

Personas empleadas con acceso a equipamientos TIC en la C. A. de Euskadi según el tamaño del establecimiento en 2009. (%)

29

IKT ekipamenduak erabiltzeko aukera daukaten lan-kontratudun langileak Euskal Autonomia Erkidegoan establezimenduaren tamainaren arabera banatuta 2009an. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Enpresak (IGI-E).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Empresas (ESI-E).

Esa sería también una de las razones que explica que sea el personal laboral del sector servicios (Gráfico 30) quien, claramente, tiene un mayor acceso a las tecnologías de la información y comunicación, independientemente del tamaño de la empresa.

Se ha afirmado anteriormente que las empresas del sector industrial son las que se encuentran tecnológicamente más equipadas; sin embargo, debido en parte a la división del trabajo mencionada, son las personas empleadas en empresas del sector servicios quienes mayor acceso tienen a estas tecnologías. El 70,0% de las personas empleadas en empresas del sector servicios tiene ordenador, el 61,2% acceso a Internet y el 60,0% correo electrónico. En el caso de las personas empleadas en el sector industrial, el 49,8% tiene ordenador, el 35,1% acceso a Internet y el 39,0% correo electrónico.

Horregatik daukate, besteak beste, zerbitzu-sektoreko lankontratudun langileek (30. grafikoa), argi eta garbi, informazio eta komunikazio teknologietarako sarbide handiagoa, enpresaren tamaina gorabehera.

Lehenago aipatu dugu industria-sektoreko enpresak daudela ongien ekipatuak teknologikoki; alabaina, lehen aipatu dugun lan-banaketaren ondorioz, zerbitzu-sektoreko enpresetan diharduten langileek daukate teknologia horietarako sarbide handiagoa. Zerbitzu-sektoreko enpresetan diharduten langileen %70,0k ordenagailu pertsonala daukate, %61,2k Interneterako sarbidea eta %60,0k posta elektronikoa. Industria-sektorean diharduten langileei dagokienez, %49,8k daukate ordenagailu pertsonala, %35,1ek Interneterako sarbidea eta %39,0k posta elektronikoa.

Personas empleadas con acceso a los equipamientos TIC en la C. A. de Euskadi según sector de actividad y tamaño del establecimiento en 2009. (%)

30

IKT ekipamenduak erabiltzeko aukera daukaten lankontratudun langileak Euskal Autonomia Erkidegoan jardueraren sektorearen eta establezimenduaren tamainaren arabera banatuta 2009an. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Enpresak (IGI-E).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Empresas (ESI-E).

El porcentaje de personas empleadas que utiliza equipamientos tecnológicos ha ido aumentando progresivamente a lo largo de los últimos años (Gráfico 31). Disponer de ordenador, de correo electrónico y de Internet se ha extendido de manera significativa entre las personas empleadas, siendo estos dos últimos elementos, y sobre todo Internet, los que han experimentado un crecimiento más elevado en los últimos ocho años.

Las personas empleadas que disponen de ordenador han pasado del 46,4% en 2001 al 62,5% en 2009, un incremento de 16,1 puntos. Quienes tienen Internet han pasado del 23,4% al 52,7%, un crecimiento de 29,3 puntos. En estos ocho últimos años el crecimiento del número de personas empleadas que disponen de acceso a Internet ha sido casi el doble que el experimentado entre las que disponen de ordenador.

Finalmente, quienes disponen de correo electrónico han aumentado en el mismo período del 25,8% al 52,8%, una elevación de 27,0 puntos.

Este significativo crecimiento del porcentaje de personas empleadas con acceso a Internet ha tenido lugar en todos los tamaños de empresas y en los tres territorios históricos. Sin embargo, el balance del aumento del número de personas empleadas con acceso a Internet ha sido algo mayor en las empresas del sector servicios y en las localizadas en Bizkaia.

Ekipamendu teknologikoak erabiltzen dituzten langileen portzentajeak modu mailakatuan egin du gora azken urteetan (31. grafikoa). Ordenagailu pertsonala, posta elektronikoa eta Interneterako sarbidea eskuragarri izatea nabarmen zabaldu da langileen artean eta azken bi elementu horiek, batez ere Internetek, izan dute hazkunde handiena azken zortzi urteetan.

Ordenagailu pertsonala zeukaten langileak %46,4 ziren 2001. urtean eta 2009an, berriz, %62,5ek daukate; 16,1 puntuko hazkundea izan da. Internet langileen %23,4k zeukaten eta %52,7k daukate; 29,3 puntuko hazkundea izan da. Azken zortzi urteetan Interneterako sarbidea daukaten langileen kopurua ordenagailu pertsonala daukatenen artean izandako hazkundearen ia bikoitza izan da.

Azkenik, posta elektronikoa daukaten langileen kopuruak epealdi berean %25,8tik %52,8rako hazkundea izan du; 27,0 puntuko hazkundea izan da.

Interneterako sarbidea daukaten langileen portzentajearen hazkunde nabarmen hori enpresa-mota guztietan eta hiru lurralde historikoetan izan da. Alabaina, Interneterako sarbidea daukaten langileen kopurua apur bat handiagoa izan da zerbitzu-sektoreko eta Bizkaiko enpresetan.

Evolución de las personas empleadas con acceso a los equipamientos TIC en los establecimientos de la C. A. de Euskadi en 2001-2009. (%)

31

IKT ekipamenduak erabiltzeko aukera daukaten langileak Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduetan 2001-2009 artean. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Enpresak (IGI-E).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Empresas (ESI-E).

2.3 Usos del ordenador en el mundo rural

Mientras que el 63,4% de las familias que residen en municipios rurales dispone de ordenador en la vivienda, el 68,5% de las familias del resto de municipios dispone de este tipo de equipamiento.

En relación con el uso del ordenador, el 51,6% de la población rural de 15 y más años ha utilizado el ordenador en los últimos 3 meses (Gráfico 33), el 6,1% lo ha utilizado alguna vez con anterioridad y el 42,3% no lo ha usado nunca.

Sin embargo, existe un retraso en cuanto a la utilización de Internet, ya que mientras el 51,7 de la población de la C. A. de Euskadi se ha conectado a Internet en los últimos 3 meses, únicamente lo ha hecho el 46,0% de la población que vive en municipios rurales.

2.3 Ordenagailuaren erabilera landa-eremuan

Udalerri landatarretan bizi diren familien %63,4k du ordenagailua etxean eta gainerako udalerrietan familien % 68,5ek.

Ordenagailuaren erabilerari dagokionez, 15 urte eta gehiagoko biztanle landatarren %51,6k azken 3 hilabeteetan ordenagailua erabili dute (33. grafikoa), %6,1ek aurrez noizbehinka erabili du eta %42,3k ez dute sekula erabili.

Alabaina, nolabaiteko atzerapena dago Internet erabiltzeari dagokionez, izan ere, Euskal AEko biztanleen %51,7 azken 3 hilabeteetan konektatu dira Internetera; udalerri landatarretan bizi diren biztanleei dagokienez, berriz, %46,0 baino ez dira konektatu Internetera.

Población de 15 y mas años por equipamiento de ordenadores en el ámbito rural. C. A. de Euskadi. 2009. (%)

32 ***15 urte eta gehiagoko biztanleak ordenagailu-ekipamenduen arabera, landa eremuan. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2009. (%)***



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F).

Población de 15 y más años por utilización del ordenador e Internet en el ámbito rural. C. A. de Euskadi. 2009. (%)

33

15 urte eta gehiagoko biztanleak landa-eremuan ordenagailuaren eta Interneteko erabileraren ara bera banatuta. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2009. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F).

3 USOS DE INTERNET EN LA C. A. DE EUSKADI

3.1 Usos de Internet en la C. A. de Euskadi

3.1.1 Contexto etnográfico de la red: dónde, cuándo y cuánto tiempo

El 59,4 de la población de la C. A. de Euskadi tiene conexión a Internet en el hogar, aunque únicamente el 51,7% se ha conectado en los últimos 3 meses. En cuanto al lugar desde el que realizan la conexión a Internet, los que disponen de esta tecnología, el 85,4% lo puede hacer desde casa, el 43,8% desde el centro de trabajo, el 12,0% desde el centro de estudio y el 4,4% desde otro lugar. Un gran número de personas ha accedido recientemente desde varios lugares distintos.

Aunque los porcentajes son muy similares (Gráfico 34), Bizkaia es el territorio histórico con mayor porcentaje de personas usuarias de Internet con el 51,8%, seguida de Gipuzkoa con el 51,7% y Álava con el 51,2%. Aproximadamente una de cada siete personas con posibilidad de usar Internet no ha hecho uso de ella en los tres últimos meses, siendo Gipuzkoa (15,1%) el territorio donde este porcentaje es mayor, seguido de Bizkaia (13,5%) y finalmente Álava (12,8%).

Los varones, con el 56,0%, superaban en 8,3 puntos el porcentaje de uso de las mujeres: el 47,7%. El 51,7% de las personas con 15 o más años había utilizado Internet en los 3 meses anteriores a la realización de la encuesta.

Estas cifras parecen señalar la juventud de los usuarios de Internet como una característica de quienes utilizan esta herramienta tecnológica. En efecto, los jóvenes que usan Internet son el colectivo mayoritario con el 84,3%, reduciéndose este uso al 64,0% entre los adultos y al 15,4% entre los mayores.

El uso de Internet está relacionado en mayor medida con el hecho de ser estudiante, pues el 97,0% de éstos lo han usado en los últimos 3 meses, que con estar ocupado (70,5% de los usuarios) o ser inactivo o desempleado (20,4% de usuarios).

El mayor grado de penetración se produce entre las personas que tienen estudios universitarios, 86,7%, seguido de las que cuentan con estudios secundarios (63,7%) y, finalmente, de las que tienen estudios primarios (7,0%).

3 INTERNETEN ERABILERAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

3.1 Interneten erabilerak Euskal Autonomia Erkidegoan

3.1.1 Sarearen testuinguru etnografikoa: non, noiz eta zenbat denboraz

Euskal AEko biztanleen %59,4k daukate Interneteko konexioa etxean, baina %51,7 konektatu dira azken 3 hilabeteetan. Interneteko konexioa egiteko lekuari dagokionez, %85,4k etxetik egin dezakete, %43,8k lantokitik, %12,0k ikasketa-lekutik eta %4,4k beste lekuren batetik. Pertsona ugari sartu dira Interneten berriki hainbat lekutatik.

Portzentajeak oso antzekoak badira ere (34. grafikoa), Bizkaia da Interneteko erabiltzaileen portzentaje handiena daukan lurralde historikoa; ondoren, Gipuzkoa dago (%51,7) eta azken lekuan, berriz, Araba (%51,2). Gutxi gorabehera, Internet erabiltzeko aukera daukaten zazpi pertsonatik batek azken hiru hilabeteetan ez du Internet erabili. Gipuzkoak dauka portzentaje handiena (%15,1), ondoren, Bizkaia dago (%13,5) eta azken lekuan, berriz, Araba (%12,8).

Gizonezkoen erabileraren portzentajea (%56,0) emakumezkoena baino 8,3 puntu handiagoa da (%47,7). 15 urte eta gehiagoko pertsonen %51,7k inkestaren aurreko 3 hilabeteetan Internet erabili dute.

Kopuru horiek adierazten dute Interneteko erabiltzaileen gaztetasuna dela tresna teknologiko hori erabiltzen dutenen ezaugarria. Internet erabiltzen duten gazteen multzoa da nagusi (%84,3). Erabilera murriztu egiten da helduen (%64,0) eta nagusien artean (%15,4).

Interneten erabilera neurri handiagoan dago lotuta ikasle izateari, ikasleen %97,0k erabili baitute Internet azken 3 hilabeteetan, langile izatearekin (erabiltzaileen %70,5 dira) eta lanean ez jardutearekin edo langabetu izatearekin baino (erabiltzaileen %20,4).

Neurri handiagoan sartu dira unibertsitateko ikasketak dituztenak (%86,7), jarraian daude bigarren mailako ikasketekikoak (%63,7) eta azkenik, lehen mailako ikasketekikoak (%7,0).

Población de 15 y más años usuaria de Internet en los últimos 3 meses según territorio histórico. C. A. de Euskadi. 2009. (%)

34

Azken 3 hilabeteetan Internet erabili duten 15 urte eta gehiagoko biztanleak lurralde historikoaren arabera banatuta. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2009. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F).

Que exista la posibilidad de conectarse no implica que la conexión llegue a realizarse o que ésta se realice con un determinado nivel de frecuencia (Gráfico 35). Más de la mitad de la población (63,7%) se conecta diariamente –al menos 5 días por semana-, el 31,4% alguna vez, todas las semanas aunque no diariamente, el 4,0% al menos una vez al mes, sin ser todas las semanas y el 0,9% no todos los meses. Se puede afirmar que el nivel de uso es alto, pues 9 de cada 10 personas de los que se han conectado se conectan todas las semanas. Según la evolución de los últimos años, el grupo que crece es el de los que se conectan todos los días.

Konektatzeko aukera izateak ez dakar berekin konektatzea edo nolabaiteko maiztasunarekin konektatzea (35. grafikoa). Biztanleriaren erdia baino gehiago (%63,7) egunero konektatzen da –gutxienez astean 5 aldiz-, %31,4 astero aldiren batean baina ez egunero, %4,0 hilean behin gutxienez baina ez astero eta %0,9 ez hilero. Esan daiteke erabilera-maila handia dela, konektatu diren 10 pertsonetatik 9 astero konektatzen baitira. Azken urteetako garapenaren arabera, hazkundea izan duen taldea egunero konektatzen diren pertsonena da.

Evolución de la frecuencia de acceso a Internet de la población de 15 y más años. C. A. de Euskadi. 2003-2009. (%)

35

15 urte eta gehiagoko biztanleak Internetera sartzeko maiztasunaren garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2009. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F).

La frecuencia de acceso es un elemento importante para observar las tendencias de uso, y los datos señalan que se incrementa entre los que usan Internet diariamente (al menos 5 días a la semana) en más de 20 puntos porcentuales, del 40,2% en 2003 al 63,7% en 2009. Por otro lado, se reducen ligeramente los porcentajes de quienes usan Internet semanal o mensualmente.

El 13,9% de la población de 15 y más años con posibilidad de acceder a Internet no se ha conectado en los últimos 3 meses, un 3,2% que sí ha accedido a Internet con anterioridad en alguna ocasión, y un 10,7% que no se ha conectado nunca. Entre estos últimos encontramos más mujeres que varones, personas con 55 y más años, inactivos y parados y personas con estudios primarios.

El medio mayoritario de acceso a Internet es el ordenador, en el 99,9% de los casos, seguido del teléfono móvil (1,6%), mientras que otras vías como la televisión, la consola de videojuegos u otros medios no sobrepasan el 0,7%. Como hemos tenido oportunidad de comentar en relación con el equipamiento de los hogares y con el uso del ordenador, el paso del tiempo no supone necesariamente un incremento de la presencia y utilización del teléfono móvil, tampoco en lo que se refiere al acceso a Internet. El incremento o disminución depende de elementos como la utilidad que los usuarios encuentran, el surgimiento de nuevos usos o la desaparición de los antiguos. El desarrollo de la tecnología depende tanto de los valores de una sociedad como de las prácticas de sus miembros. En el caso de Internet, su novedad no permite ver aún claras tendencias de base.

El porcentaje de las personas que han usado Internet en los últimos años ha pasado del 32,1% en 2003, al 37,8% en

Sarbidearen maiztasuna oso elementu funtsezkoa da erabileraren joerei erreparatzeko eta, datuen arabera, hazkundea izan du Internet egunero erabiltzen dutenen artean (gutxienez 5 egunez astean), 20 portzentaje-puntu baino handiagokoa; 2003an %40,2koa zen kopurua eta 2009an, berriz, %63,7koa. Bestalde, Internet astero edo hilero erabiltzen dutenen portzentajeak behera egin du apur bat.

Internetera sartzeko aukera duten 15 urte eta gehiagoko biztanleen %13,9 ez dira azken hilabeteetan konektatu, %3,2 aurretik inoiz sartu dira Interneten eta %10,7 ez dira sekula konektatu. Azken hauetan gizonezkoak baino emakumezko gehiago dago, 55 urte eta gehiagokoak, lanik egiten ez dutenak eta langabetuak eta lehen ikasketekikoak.

Internetera sartzeko bitarteko nagusia ordenagailua da (%99,9). Ondoren, sakelako telefonoa dago (%1,6); aldiz, beste bide batzuk, esaterako, telebistak edo bideo-jokoen kontsolak ez dute %0,7ko portzentajea gainditzen. Etxeetako ekipamenduei eta ordenagailu pertsonalaren erabilerari lotuta aipatu dugu denboraren joanak ez dakarrela nahitaez sakelako telefonoaren presentziaren eta erabileraren hazkundea, ezta Interneterako sarbideari dagokionez ere. Hazkundea eta murrizketa erabiltzaileentzako erabilgarritasunari, erabilera berriak sortzeari edo zaharrak desagertzeari lotuta daude, besteak beste. Teknologiaren garapena gizarte baten balioen eta gizarte horretako kideen ohituren mende dago. Interneten kasuan, berria izateak ez du argi ikusarazten oinarrizko joerak zein diren.

Internet azken urteetan erabili duten pertsonen portzentajea % 32,1ekoa zen 2003an, %37,8koa 2005ean eta %51,7koa

Evolución de la población de 15 y más años que ha utilizado Internet en los últimos 3 meses. C. A. de Euskadi. 2003-2009. (%)

36

Azken 3 hilabeteetan Internet erabili duten 15 urte eta gehiagoko biztanleen garapena. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2003-2009. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F).

2005, alcanzando el 51,7% en 2009 (Gráfico 36). Todos los grupos de edad incrementan el uso de Internet, pero donde resulta más relevante es entre los jóvenes, donde el porcentaje de uso ha pasado del 59% en 2003 al 84,3% en 2009. El 64,0% de los adultos ha utilizado Internet en los últimos 3 meses, así como el 15,4% de los mayores. El 97,0% de los estudiantes usaron Internet en 2009, aunque el grupo donde cuantitativamente más crece es entre los ocupados, pasando del 40,9% en 2003 al 70,5% en 2009. Mientras en 2003 el 71,6% de los que tenían estudios superiores usaron Internet, este porcentaje se había incrementado hasta el 86,7% en 2009.

Atendiendo a la evolución de quiénes usan y no usan Internet, fenómeno que se conoce como brecha digital, se puede afirmar que los que no se han conectado a Internet en los últimos 3 meses se reducen entre los más jóvenes, los estudiantes y los que tienen estudios medios y superiores, y se incrementan entre los adultos, los inactivos y parados y los que tienen estudios primarios.

2009an (36. grafikoa). Adin-multzo guztietan gora egin du Interneten erabilerak baina hazkundea nabarmenagoa izan da gazteen artean. 2003an %59koa zen portzentaje hori eta %84,3koa, berriz, 2009an. Helduen %64,0k eta nagusien %15,4k erabili dute Internet azken 3 hilabeteetan. Ikasleen %97,0k erabili dute Internet 2009an. Dena den, kuantitatiboki hazkunde handiena izan duen taldea lanean diharduten pertsonena izan da, 2003an %40,9ko portzentajea osatzen baitzuten eta %70,5ekoa, berriz, 2009an. 2003an Internet erabili zutenen %71,6k goi mailako ikasketak zituzten eta portzentaje hori %86,7koa izan da 2009an.

Internet erabiltzen dutenen eta erabiltzen ez dutenen garapenari erreparatuta, hau da, haustura digitalari erreparatuta, esan daiteke Internetera azken 3 hilabeteetan konektatu ez diren pertsonen kopuruak beherakada handiena gazteen, ikasleen eta erdi eta goi mailako ikasketak dituztenen artean izan duela eta gorakada izan duela, aldiz, helduen, lanean ez dihardutenen eta langabeen eta lehen mailako ikasketak dituztenen artean.

3.1.2 Cartografía e itinerarios de los usuarios de la red: cómo y para qué se accede

El predominio del espacio privado para el acceso a Internet puede verse en el dato de que el 85,4% de los que se han conectado a Internet en los 3 últimos meses lo ha hecho desde casa; el 43,8% desde el centro de trabajo; el 12,0% desde el centro de estudio y el 4,4% desde otros lugares, donde se incluyen cibercafés y lugares de acceso público. Los alaveses son los que más se conectan desde casa (88,5%), los vizcaínos desde el centro de trabajo (46,5%) y desde el centro de estudio (13,0%) y los guipuzcoanos desde otros lugares de acceso (5,5%). A lo largo de los últimos años, la conexión desde casa no ha dejado de reforzar su liderazgo como lugar privilegiado para acceder a Internet, seguido del centro de trabajo.

Los fines y motivos personales son señalados como razón del 61,7% de los accesos a Internet, los profesionales del 32,6%, los académicos del 3,8% y un 2,0% de personas que acceden indican que lo hacen para otros fines.

De las actividades que se pueden realizar por Internet (Gráfico 37), la que se utiliza en mayor medida es la búsqueda de información sobre bienes y servicios (90,8%) seguida del correo electrónico (86,8%) y la consulta de medios de comunicación (64,3%). La comunicación y la ampliación de la información son las prácticas más utilizadas por quienes acceden a Internet. En los últimos años se ha asistido a un debate sobre si no sería más correcto hablar de Tecnologías de la Comunicación en lugar de hacerlo de Tecnologías de la Información. Veamos estas actividades por separado con un poco más de detenimiento.

Aunque no resulta fácil diferenciar entre acciones de finalidad comunicativas e informativas, y siendo conscientes de que un único sentido no agota las posibilidades de ciertas prácticas, sí es posible diferenciarlas a partir del carácter predominante implícito en algunos servicios. Así, por un lado, ciertas prácticas tienen un carácter marcadamente comunicativo: usar el correo electrónico (86,8%), participar en chats, foros, usar Messenger (36,3%), para telefonear o realizar videoconferencias (8,1%), enviar mensajes a móviles –SMS- (3,3%) o transferir ficheros –FTP- (34,5%). Por otro lado, ciertos usos de Internet se orientan más hacia la búsqueda y satisfacción de una necesidad informativa: información sobre bienes y servicios (90,8%), buscar sobre derechos del consumidor (16,9%), informarse a través de los medios de comunicación (64,3%), obtener información de páginas de la Administración (51,8%) o sobre problemas de salud (30,6%).

Estas dos funciones, comunicar (se) e informar (se), se solapan entre sí, en numerosas ocasiones, con otras actividades en preguntas como ¿ha usado Internet para realizar trámites o buscar información? A pesar de esta dificultad, nos interesa profundizar un poco más en otros tipos de usos: los relacionados con el consumo y la gestión económica, el ocio y la cultura, la relación con la Administración y la gestión de trámites administrativos que evitan la necesidad de desplazarse.

3.1.2 Sarearen erabiltzaileen kartografia eta ibilbideak: nola eta zertarako sartzen dira

Interneten sartzeko espazio pribatuaren nagusitasuna nabarmena da, Internetera azken 3 hilabeteetan konektatu direnen %85,4 etxetik konektatu baitira; %43,8 lantokitik; %12,0 ikasketa-lekutik eta %4,4 beste leku batzuetatik, besteak beste, ziberkafeetatik eta sarbide publikoko lekuetatik. Arabarrak dira etxetik gehien konektatzen direnak (%88,5), bizkaitarrak lantokitik (%46,5) eta ikasketa-lekuetatik (%13,0) gehien konektatzen direnak eta gipuzkoarrak beste toki batzuetatik sartzen direnak (%5,5). Azken urteetan etxetik konektatu da jendea, batez ere, eta Internetera sartzeko toki nagusia izaten jarraitzen du, ondoren lantokia dago.

Helburu eta arrazoi pertsonalak dira Interneteko sarreren %61,7ren zergati nagusiak, profesionalen sarreren %32,6en arrazoiak, akademikoen %3,8renak eta Interneten sartu diren pertsonen %2,0k adierazi dute beste arrazoi batzuk direla medio sartu direla.

Internet bidez gauza daitezkeen jardueretatik (37. grafikoa), ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioaren bilaketa da nagusi (%90,8) posta elektronikoa dago ondoren (%86,8) eta, jarraian, komunikabideen kontsulta (%64,3). Komunikazioa eta informazioa zabaltzea dira Internetera sartzen diren pertsonek gehien gauzatzen dituzten jarduerak. Azken urteetan, eztabaida bat izan da: komunikazio teknologia izendatzea ez ote den zuzenagoa informazio teknologia izendatzea baino. Azter ditzagun jarduera horiek banan-banan eta apur bat sakonago.

Ez da erraza bereiztea komunikazio-helburuko eta informazio-helburuko ekintzak eta badakigu esanahi bakar batek ez dituela agortzen jarduteko zenbait aukera, baina zenbait zerbitzutan nagusi den izaera inplizitutik abiatuta bereiz daitezke. Beraz, batetik, zenbait jarduerek komunikazio-izaera finkatua daukate: posta elektronikoa erabiltzeak (%86,8), txatetan eta foroetan parte hartzeak edo Messenger sistema erabiltzeak (%36,3), telefonoz deitzeak edo bideokonferentziak egiteak (%8,1), sakelako telefonoetara mezuak bidaltzeak –SMSak- (%3,3) edo fitxategiak transferitzeak –FTP- (%34,5). Bestalde, Interneten zenbait erabilera informazio-behar bat asetzera bideratuta daude: ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa (%90,8), kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa bilatzea (16,9), komunikabideen bitartez informazioa lortzea (%64,3), Administrazioaren orrietatik informazioa lortzea (%51,8) edo osasun-arazoei buruzko informazioa lortzea (%30,6).

Bi funtzio horiek, komunikatzea eta informatzea, gainjarri egiten dira askotan beste zenbait jarduerekin “Internet izapideak egiteko edo informazioa bilatzeko erabili duzu?” eta antzeko galderetan. Zailtasun hori gorabehera, pixka bat gehiago sakondu nahi genituzke beste zenbait erabilera: kontsumoarekin eta kudeaketa ekonomikoarekin zerikusia dutenak, aisialdiarekin eta kulturarekin, Administrazioarekiko harremanekin eta desplazatu beharrik gabeko administrazio-izapideen kudeaketarekin lotura daukatenak.

Población de 15 y más años por servicios de Internet utilizados. C. A. de Euskadi. 2009. (%

37

15 urte eta gehiagoko biztanleak erabilitako Interneteko zerbitzuen arabera banatuta. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2009. (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta. Familiak (IGI-F).

Fuente: EUSTAT. Encuesta Sociedad de la Información. Familias (ESI-F).

El consumo y las actividades económicas son responsables de un buen número de actividades realizadas a través de Internet. El 41,8% utilizó este medio para acceder a bancos y realizar actividades financieras (bolsa, etc.), un 25,2% para comprar bienes y servicios y el 2,9% para realizar ventas de bienes y servicios. Con anterioridad ya hemos mencionado que el 16,9% se había informado sobre derechos del consumidor. En los últimos años se han desarrollado de manera significativa las actividades relacionadas con el ocio y la cultura, y ello queda reflejado en las respuestas de los internautas: el 48,1% ha hecho uso de servicios de ocio, descargarse o usar juegos, música, etc.; el 34,5% para consultar bibliotecas y otros centros de documentación, y el 8,8% para visitar museos virtuales. A medio camino entre las actividades de consumo mencionadas con anterioridad y las de ocio encontramos que el 28,9% ha realizado reservas de alojamiento o de viajes relacionados con el turismo.

Kontsumoa eta jarduera ekonomikoak dira Internet bidez gauzatzen diren jarduera askoren eragileak. %41,8k banketxeetara sartzeko eta finantza-jardueretarako (burtsa, eta abar) erabili zuten, %25,2k ondasunak eta zerbitzuak erosteko eta %2,9k ondasunen eta zerbitzuen salmentarako. Lehenago aipatu dugu %16,9k kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa lortzeko erabili zutela. Azken urteetan nabarmen areagotu dira aisialdiarekin eta kulturarekin lotura daukaten jarduerak eta hori agerian gelditu da internauten erantzunetan: %48,1ek aisialdiko zerbitzuak erabiltzen dituzte, jokoak, musika eta abar deskargatzeko edo erabiltzeko; %34,5ek liburutegiak kontsultatzeko erabiltzen dute eta %8,8k museo birtualak bisitatzeko. Aurretik aipatu ditugun jardueren eta aisialdikoen erdibidean dago turismoarekin lotura daukaten ostatuak edo bidaiak hartzea, %28,9ko portzentajea baitu.

Las prácticas relativas al e-learning son todavía minoritarias, pero están mostrando una rápida incorporación a los procesos más tradicionales de aprendizaje basados en la presencialidad. Las recientes transformaciones de la enseñanza obligatoria, la creciente incorporación del ordenador y la conexión a Internet a los hogares, así como la confluencia a nivel europeo en el nivel de la enseñanza post-obligatoria y el impulso del aprendizaje por medios virtuales en general suponen una presión añadida al uso de Internet entre los más jóvenes. Sin embargo, parece que todavía no ha llegado ese momento a la transmisión y aprendizaje de conocimientos reglados, ya que únicamente el 2,1% usa la red para cursos de educación, del colegio o la universidad y el 6,1% para otros cursos. A pesar de ello, no conviene olvidar que, al menos, una parte del 34,5% que realiza consultas en bibliotecas y otros centros de documentación se debe a razones vinculadas con el aprendizaje educativo. Tampoco la realización de cursos dirigidos a la búsqueda de oportunidades de empleo está más extendida: el 1,9%.

La posibilidad de realizar algunos trámites administrativos implica ventajas en términos de ahorro de tiempo y reducción de costes para el usuario. Vivir en una sociedad de masas implica una gestión y administración acorde con sus características, una relación entre administración y administrados, proveedores y clientes, basada en la autoridad legal-racional, en la seguridad jurídica que proporciona el procedimiento que se atiene al expediente por escrito: la cultura de la burocracia, modelo de gestión administrativa característica de la sociedad contemporánea. La e-administración, tanto pública como privada, supone importantes ventajas y economías. Los usos más frecuentes se relacionan con la posibilidad de realizar consultas a bibliotecas y centros de documentación (34,5%), obtener información de páginas de la Administración (51,8%), descargar formularios oficiales (27,2%), enviar formularios cumplimentados (18,2%), matriculaciones y otras consultas sobre notas, calendarios, etc., (10,1%), o en la gestión de búsqueda de empleo (16,0%). Todo parece apuntar a que la incorporación de Internet está facilitando una liberación de trámites administrativos que antes se realizaban de forma presencial y ahora se llevan a cabo telemáticamente.

La posibilidad de uso de determinados servicios a través de Internet ha experimentado un crecimiento significativo en los últimos años. Las páginas Web con información de todo tipo y la posibilidad de realizar gestiones, compras, transacciones, etc., no han dejado de crecer.

El uso más generalizado desde que disponemos de datos sobre Internet tiene que ver con el correo electrónico: en torno a 8 de cada diez personas viene utilizándolo a lo largo de los últimos años con pequeñas variaciones. Los chats y los grupos de conversación también crecen lentamente, pero a larga distancia y sin llegar a alcanzar en ningún caso la importancia del correo electrónico. En menor medida se envían mensajes a móviles o se utiliza la telefonía y las videoconferencias.

La búsqueda y envío de información es uno de los grandes motores propulsores de Internet, ya que han aumentado la

E-learning delakoarekin lotura daukaten jarduerak gutxienak dira oraindik, baina azkar barneratu dira presentzialitatean oinarrituriko ikaskuntza-prozesu tradizionalagoen artean. Derrigorrezko hezkuntzak izandako aldaketa berriek, ordenagailuen ezarpen gero eta handiagoak eta etxeetako Interneteko konexioak presio erantsia dakarkiote gazteen Interneteko erabilerari, baita derrigorrezko irakaskuntzaren osteko irakaskuntza Europako mailarekin parekatzeak eta bitarteko birtualen bidezko ikaskuntzaren bultzadak ere. Alabaina, badirudi oraindik ez direla maila horretara iritsi ezagutza arautuen irakaskuntza eta ikaskuntza, %2,1ek soilik erabiltzen baitute sarea hezkuntza-ikastaroak, ikastetxeko edo unibertsitateko ikastaroak egiteko eta %6,1ek bestelako ikastaroetarako. Hala ere, ezin dugu ahaztu liburutegietan eta beste dokumentazio-zentro batzuetan kontsultak egiten dituzten %34,5 horietatik zenbaitek hezkuntza-mailako ikaskuntzarekin lotura daukaten arrazoiak zirela medio egiten zituztela kontsultak. Enplegu-aukerak bilatzera zuzendutako ikastaroak egitea ere ez dago zabalduagoa: %1,9.

Zenbait administrazio-izapide gauzatu ahal izateak abantailak dakartza erabiltzailearentzat denbora murrizteari eta kostuak gutxitzeari dagokionez. Masen gizartean bizitzeak esan nahi du bere ezaugarriekin bat datorren kudeaketa eta administrazioa izatea, administrazio-administratu eta hornitzaile-bezero harremana legezko-arrazoizko agintean oinarritzen da, idatzizko espedientearen prozedurak eskaintzen duen segurtasun juridikoan: burokraziaren kultura, gizarte garaikidearen administrazio-kudeaketaren eredua. E-administrazio publiko eta pribatuak abantaila eta ekonomia garrantzitsuak ditu. Ohiko erabilerek lotura daukate liburutegietan eta dokumentazio-zentroetan kontsultak egiteko aukerarekin (%34,5), Administrazioren orrietatik informazioa lortzearekin (%51,8), inprimaki ofizialak deskargatzearekin (%27,2), inprimakiak beteta bidaltzearekin (%18,2), matrikulazioekin eta notei, egutegiei... buruzko beste kontsultekin (%10,1) edo enplegu-bilaketaren kudeaketarekin (%16,0). Badirudi Internetek erraztu egiten duela lehen bertan egonda gauzatzen ziren administrazio-izapideak orain telematikoki gauzatzea.

Zenbait zerbitzu Internet bidez gauzatzeak hazkunde nabarmena izan du azken urteetan. Askotariko informazioa daukaten eta kudeaketak, erosketak, transakzioak eta abar egiteko aukera ematen duten web orriek etengabe egin dute gora.

Interneti buruz datuak dauzkagunetik izan den erabilera orokortuagoak lotura dauka posta elektronikoarekin: hamar pertsonatik zortzi inguruk azken urteetan erabiltzen du aldaketa txiki batzuekin. Txatek eta solasaldi-taldeek ere gora egin dute pixkanaka, baina ez dira sekula posta elektronikoaren garrantzi-mailara iritsi. Maila txikiagoan bidaltzen dira mezuak sakelako telefonoetara edo erabiltzen dira telefonia eta bideokonferentziak.

Informazioaren bilaketa eta bidalketa da Interneten bultzatzaile nagusia, gora egin baitu ondasunei eta ekipoei buruz-

información sobre bienes y servicios, la información de la administración, las matriculaciones y otras consultas académicas, la información sobre salud. La consulta de los medios de comunicación también ha aumentado considerablemente.

El ocio, el entretenimiento y el turismo representan un porcentaje notable de los usos de Internet. Así, las reservas de turismo han aumentado ligeramente, junto a los servicios de ocio y los museos virtuales, mientras que las bibliotecas y centros de documentación han sufrido un ligero descenso. Paradójicamente, muchas de estas actividades se han reducido entre los usuarios de Internet en los últimos años, lo que podría estar indicando dos cosas: a) que el ocio se desplaza de Internet hacia otras prácticas como los videojuegos; y b) que Internet está perdiendo atractivo como medio de satisfacer las demandas de ocio y entretenimiento.

El uso de Internet puede estar extendiéndose para gestionar cierto tipo de actividades: la banca electrónica, el envío de ficheros, la descarga de formularios oficiales, el envío de formularios cumplimentados. También para la realización de compras y, en menor medida, para la venta.

A pesar de la insistencia por parte de numerosos expertos en la relevancia de las nuevas tecnologías en la educación y en el proceso de aprendizaje, tanto en el período de la vida en el que las personas pasan por el sistema educativo obligatorio como después de haberse incorporado al mercado de trabajo, su utilización es manifiestamente baja en la educación reglada, en la capacitación para la inserción en el mundo laboral o en la propia búsqueda de empleo.

La utilización de Internet es una práctica que tiene lugar mayoritariamente en el ámbito doméstico. Si exceptuamos el envío de formularios cumplimentados, que se realiza con mayor frecuencia desde el centro de trabajo, todas las demás actividades se llevan a cabo en mayor medida desde el hogar que desde otros lugares de acceso. Predomina el espacio doméstico en la utilización de Internet para chats, consulta sobre derechos del consumidor, reservas de turismo, medios de comunicación, museos virtuales, bibliotecas y documentación, servicios de ocio, educación reglada (en este caso con una importante cifra de accesos desde el centro de estudios), cursos para búsqueda de empleo, matriculaciones y otras consultas académicas, información sobre salud y gestiones de búsqueda de empleo.

Hay un uso mixto de Internet desde el hogar y el centro de trabajo para enviar correos electrónicos, telefonía y videoconferencias, mensajes a móviles, transferencia de ficheros, banca electrónica, venta de bienes y servicios, compras de bienes y servicios, información sobre bienes y servicios, información de la Administración, descarga de formularios oficiales, información sobre salud y descarga de software.

Los que navegan en castellano son el 99,4% de la población usuaria de Internet (Gráfico 38). El 22,8% lo hace en euskera, el 23,4% en inglés y el 2,8% en francés. Bizkaia tiene el mayor porcentaje de internautas en euskera, el 24,9%, seguido de

ko informazioak, administrazioaren informazioak, matrikulazioek eta gainontzeko kontsulta akademikoek, osasunari buruzko informazioak. Komunikabideen kontsultek ere gora egin dute.

